



ARANTZako UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
📠 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Deialdia: Lehenengoa

Bilera mota: Ohiko Osoko bilkura

Eguna: 2020ko maiatzaren 21ean

Ordua: 18:00etan.

Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia

Bertaratuak:

- Dabid Iturria Almandoz jn. EH Bildu.
- Eneko Sarrias Zoco jn, EH Bildu.
- Leire Mitxelena Gamio and. EH Bildu
- Imanol Lukanbio Larretxea jn. EH Bildu
- Joseba Pikabea Iribarren jn. EH Bildu
- Beñat Mitxelena Danboriena jn. EH Bildu
- Markel Jorajuria Elizondo jn. EH Bildu

Idazkaria: Ainara Velez Ara.

AZTERGAIK:

1.- Aurreko aktaren onspena

2020/03/05eko akta aho batez onartzen da.

2.- 2020ko aurrekontu proiektua eta aurrekontua gauzatzeko araua.

Aurreko ohiko bilkuran erabaki zen bezala, aurrekontu proiektuari buruzko azalpen txiki bat ematen da. Gaia eztabaidagarri ezartzen da:

Kontuhartzaileak diru sarreretan sartu beharreko diru-laguntza baten berri ematen du "Libre Determinazioa" aurkezturiko dokumentazioan ez dagoena. Honi buruzko informazioa ematen du.

"Donato Larretxearen omenaldia" 13340 2260901 kodedun partidari erreparatu zaio, 6.125€ partida jartzea erabaki da.

“Herri bazkariko txartelak” izeneko partida, 13140113 kodedun partidan, 5.180€ ezartzea erabaki da.

“Emakumearen baratza” izeneko partidan 1.000 euro ezartzea adostu da.

Behin gaia eztabaidatuta, Udalkideek aho batez adostu dute:

1. Bilkuran adosturiko aldaketak eginda, 2020ko aurrekontuari hasierako onespena ematea.
2. Aurrekontua gauzatzeko oinarriak onartzea.
3. Akordio hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita, behin Alarma Egora desagertzean, 15 egunez jendaurrean jartzea.
4. Jendaurrean egoteko denbora igarotzean ez bada alegaziorik behin betikoz onartu eta argitaratuko da.

3.- 2020ko Plantilla Organikoa eta lanpostuen zerrendaren onespena.

Idazkariak gaia azaltzen du izandako aldaketak adieraziz, idazkari berria dagoela.

Lanpostuen zerrendan idazkaria aldatu da. Gai aztertuta, kontuan izanik idazkariaren txostena eta aplikagarri den araudia Ohiko Osoko Bilkurak aho batez erabaki du:

- 1.- 2020ko plantilla organiko eta lanpostuen zerrendari hasierako onespena ematea.
- 2.- Jendaurrean jartzea espedientea 15 eguneko epean (behin alarma egoera bukatzerakoan kontatzen hasita), Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udal Iragarki taulan, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak azter ditzan.
- 3.- Adieraztea jendurreko epealdian erreklamaziorik ez balego, behin betikoz onetsia izanen dela Plantilla Organikoa.

4.- 2019ko Kontuen Onespena.

Kontu hartzaileak kontuen espedientea azaltzen du.

Ikusirik kontu hartzaileak egindako txostena eta azalpenak, ohiko osoko bilkurak aho batez erabakitzen du:

- 1.- 2019ko Kontuak onestea.
- 2.- Toki Administrazioa bidaltzea akordio honen berri eta informazioa bere ezagutza eta ondorioetarako.

5.- Arantzako Udala eta Leiza Michelena senideen arteko lurralde trukea.

Udalak gaia mahi gainean uzten du terrnoaren balorazioaren zain.

6.- Udal eraikinak garbitzeko langile baten kontrataziorako deialdiaren oinarriak.

Idazkariak gaia azaldu du eta dokumentazioa azterturik, ohiko osoko bilkurak aho batez erabakitzen du:

- 1.- Deialdiaren oinarriak onartzea.
- 2.- Udal eraikinak garbitzeko langile baten deialdia martxan jartzea.

7.- Zerbitzu Anitzetako Peoi bat kontratatzeko deialdiaren oinarriak.

Idazkariak gaia azaldu du eta dokumentazioa azterturik, ohiko osoko bilkurak aho batez erabakitzen du:

- 1.- Deialdiaren oinarriak onartzea.
- 2.- Zerbitzu anitzetako peoi bat kontratatzeko deialdia martxan jartzea.

8.- Denok bat Hitzarmena.

Alkateak gaiaren inguruko informazioa ematen du eta gaia eztabaidatzen da. Ohiko Osoko bilkurak erabaki du:

- 1.- Aurkezturiko Idatzia eta Hitzarmenarekin adostasuna adieraztea.
- 2.- Hitzarmenari buruzko informazio gehiago eskatzea eta aurrerago eztabaidatzea atxiki nahi den.

9.- Guraso Elkartearekin Hitzarmena.

Idazkariak puntua mahai gainean uztea proposatzen du eta aurrerago eztabaidatzea.

Udalkideek beraien adostasuna adierazten dute.

10.- Ezkontza zibilak eta hildakoen aldeko agurrak edo omenaldi zibilak egiteko udal ordenantza. Hasierako onespina.

Idazkariak adierazten du honelako ordenantza bat onartua dagoela eta gai ordenatik ateratzea proposatzen du.

Udalkideak adostasuna adierazten dute.

11.- Alkatearen ebazpenak.

Udalkideak 21/2020tik 57/2020ra doazen alkate ebazpenen jakitun gelditzen dira eta aho batez berresten dituzte.

12.- Eskaerak eta galderak.

Ez dira egiten.

Beste aztergairik izan gabe, 21:30tan, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut

ALKATEA,
Dabid Iturria Almandoz



IDAZKARIA,
Ainara Velez Ara

